

ERRENTERIAKO LANTEGIAK URTEETAN ZEAR

Xabier

Joan zan urtean Maiatzeko egunak ziran; Esmalteria lantegiko azken arrastoak desagertzen ari ziran, bertan langille izan ziranak eta ainbat Errenteriarrek azken agurra egin zioten ainbeste urteetan erriarentzat bizi bide izandu zan lantegiari, ni ere beroien tartean nintzen eta gogora etorri zitzaizkidan gure erriak aintziñean izandu zuan nortasuna lagintza maillean ez zala nolanaikoa izan naiz eta orain lantegi ugaritasun ura desagertua izan, bilduma bat egitera ausarditu naiz gogoan dakazkiten lantegi naiz txiki edo aundi izan zirenen izenak azalduaz

1903 eta 1954 an Errenteriako lantegietako etekiñen erakusketak izandu ziran bertan azaldurik egiten ziran ainbat mota desberdin, arriturik utzita bai Espaiñako eta atzerriko laterri buruetan, ain erri txikia izanik langintza maillan zeukan banatasuna; erakusketa aiek zirala ta Espaiñako egunkariak Errenteriako izena oso goratua izan zuten eta bertako langintzatasuna eredun bezela ipiñiaz.

Bañan orain gure erriak ez dauka orduko antzarik eta lantegi batzuek alde egin dute beste erri batzuetara bertan errestasun geiago izanik, beste asko berriz tamalez desagertu egin dira bertan laneza jabe izanik eta au dala ta gure erria len ain lantegi leku zana orain askonrentzat atsedeen leku bihurturik.

Nere umetako eta gaztetako oroimenean lantegi askoren izenak gogoratzen naiz bañan geiengoak Banco Gipuzkoanon lan egin nuben garaiekoak izango dira, eguneroko ibil bidean aurkestu bearra izaten nituen oarrak (batzuetan kobratu ere bai) errian ziraden lantegietan naiz aundi eta txiki orrela izanik oroimenean gelditu diranak.

Aziko naiz zerrenda onen izenak azaltzen nire kobratzaille denborako ibilbideari jarraituaz tartean izanik ume eta gazte denboran esagutu nituenarenak, urte auetan eta aspaldisamar diraden baillara berrietakoak ez dira azalduko berauen esaugera gutxi daukatelako.


Lantegi auen izenburuak gastelarrez azalduko dira era onetan bai ziraden ezagunak.

Real Cia. Asturiana (plomo y zinc) ; Sdad Pinturas de Rentería; Astilleros Ondartxo ("Luxiano") ; Talleres Mec. Garcia; Muebles Lesaca; Imprenta Arrieta; Talleres Mendiluce (moldes); Fábrica de Gabardinas; Cafeteras Onex; Jabones Donostiarra; Muebles Goicoechea gero Similcuero-Vinyl; Conf. Illarramendi; Transportes Quiroga; Muebles F. Loidi y Cia.; Confecciones A. Huguet; Modelos Otegui; Talleres mecánicos Ymil ; Talleres de Carpintería de J.A. Lasa; Muebles J. Lasa; Prod. Químicos J.



Supervielle; Fábrica de Cuchillos gero Biseuill y Huet-Las Banderas (tinturas y ceras para el calzado); Trefilería Teutonia (alambres de todas clases) gero Tornillos Molinao S.A. ondoren Molxer (troquelería); Fundación Illarramendi gero Lan Ona S.A. (fundición hierro y metales); Metalicas Amaya(caldereria); Linternaría Hnos Sanchez; Fund. Irurzun (aluminio y bronce) gero Talleres Mecánicos D. Barinaga; Fund. Barrenechea y Aizpurua (hélices para barcos de pesca); Modelos Joaquín Olascoaga; Talleres Mecánicos Loiarde; Talleres Mecánicos Legar; Ceralina - Ferpal (material para el calzado); Fábrica de botones Urizar gero Calderería Matias; Fábrica de Rosarios Nogues; Fáb. de Perfumes Houbigant Cheramy gero Comercial Ebro (prendas de vestir) eta Paisa S.A. (productos aislantes); Tall. J.L. Olascoaga (construcción maquinaria mecánica); Linternaría D. Echeveste; Gráficas Urezbea; Muebles Urbieta; Laboratorios Carasa (productos belleza); Transportes San José; G. Niessen (material eléctrico y creadores de BAKELITE); Ind. Alfi (alfileres); Tall. Yeregui y Villanueva "Beta" (material plástico); Tall. Mujica (moldes y troqueles); Fábrica de Yute; Imprenta Macazaga; Pinturas Urruzola S.A.; Carrocería Oarso; Garaje Lete; Bloques Urkia; Fábrica de Tinturas El Quijote gero Laboratorios B.C. (productos sanitarios); Tintorería Imperial; Tall. Carpintería C. Recalde; Tall. Moldes Gonzalez; Imprenta Valverde; Taller de Grabación F. Careaga; Panadería Echeverría gero Aduriz; Máquinas para alpargatas Illarramendi; Esmaltería Guipuzcoana (batería de cocina); Transportes Bengoechea (Manuel); Tintorería Sin Rival; Prefabricados Artísticos F. Arrieta; Tintorería Oarso; Talleres Arana S. A. (industria multimotor instalaciones); Troquelería Olascoaga y Fernandez; Fabril Lanera; G. Echeverría y Cia "Euskaria" (tornillería y material eléctrico); Fundiciones Marqueze gero C. N. Oxígeno; Mecanoplástica (troquelería); Graspes (grasas pescado); Fund. Laga; Fábrica de Colas y Aprestos Lecuona gero Ind. Españolas (Contadores); Talleres M Mérida (construcciones mecánicas); Cordelería Gobantes; Baldosas Fraile; Fabricación de Cepillos Curiel; Transportes Bengoechea Lázaro; Talleres San Juan (construcciones mecánicas); Carpintería E. Imaz; Transportes Arruabarrena; Linternaría Ascasibar; Panad. Albisu; Fábrica de paraguas Urkia gero Cafeteras Omega; Tall. de Repar. de tranvías del "Topo"; Modelos Aizpurua; Alpargatería Boni; Ebanistería Gonzalez; Rosarios la Milagrosa; Talleres Zamalvide (maquinaria mecánica); Cristalería Oarso; Talleres I. Olaizola (troqueles); Linternaría Elizondo; Navajas de afeitar Arruabarrena; Tejidos de Lino S. A.; Tejidos Echeverría S. A. (lino); Panad. Garmendia; Roustán y Larrañaga (constr. vagones cubas); Galletas Pakers; Unión Alcoholera (levadura prensada); Panificadora Lecuona; Galletas Olibet; Vinos y Aceites Areizaga; Fábrica de mantas; Papelera Española S. A.; Papelera Oarso; Fábrica de Perfumes Capo Varet (cosméticos); Carrocerías Rurales; Fáb. Tejidos para Alpargatas gero Tall. Micheru (moldes para plástico); Pand. Villarreal; Fundiciones al horno eléctrico Arrieta gero Orueta (aceros) ondoren V. Luzuriaga (fundiciones en general); Talleres moldes S. Olascoaga; Angulería; Tall. Mecánicos Carp. de J.L. Uranga; Cromados Dafe; Pinturas Plasby; Industrias Tajo (mecánica para plástico); Muebles Metálicos Biain hermanos; La Fandería (piensos); Mármoles Rojos de Archipi.

Ba ziren beste lantegi askoren artean Construcciones L. Ayerbe, P. Mendizabal, A. Alzola eta F. Oyarbide.



Konturatuko ziñaten zeinbat motetako lantegiak ziraden, errosario, beruna, margo, zinka, galletak, usain gozo, paper, altzari, legami, arropa, botoi, nabarri (mármol), betuna, labaiñak, molde, bakelita, elektrogaillua, eta abar.

Izango dira bat baño geiago nere oroimenean gelditu ez ziranak bañan alegindu naiz geienak gogoratzen eta barkatuko nauzutela uztean arkitzen naiz, tartean izango diraden aztutzeak.

Orain lantegi berri batzuek izango dira bañan ikusiko dezutenez lengo asko desagertuak dira eta besteak beste erri baillaretara joanak.

Eta ona emen gure Errenteria len ain ospetsua izan zana orain lengo dirditasun ura gabe arkitzen da eta oroitzapen aiekin bizi bearko du, bere semeak erritik kampo bizi lana aurkitu bearrean, lenago bertako eta kanpokoarentzako naikoa lan izaten zalarik.

Eta gelditu gaitezen itxaropena galdu gabe gure erriak naiz zalla izanik lenago zan bezelakoa izaten alegindu dedin. ALA DEDILLA

Errenteriak beti izan du
langintzaren aipamena
Aintziñatikan azaldu zuan
gai ontarako kemena
Nolakoa zan berai "Manchester"
jarri zioten izena
Orain denborak aldatu dira
ta lantegien azkena
Bertan dago gaur lanaren orde
atseden bizi lekua.

